

Amets Irastorza Ezkiaga

E maila • 1 saria

Kaixo! Amets Irastorza naiz. Hamabi urte ditut eta La Salle ikastetxean ari naiz ikasten. Prosan saria irabazteaz gain, nire bertsoak ere saria lortu du. Poztasuna beraz bikoitza izan da. Nire zaletasunen artean saskibaloia dago. BKLn nabil eta Euskal Dantzak ere ikasten ditut Aurtzakan. Lagunekin egotea eta familiaz gozatzea ere oso gustuko ditut. Bertsoaren gaia aproposa iruditu zitzaidan, izan ere, 12 urte bete ditugun honetan, haurrak izateari uzten eta nerabezaroan sartzen hasiak gara. Aldaketa handia! Ilusioa eta beldurrak sortarazten dizkiguna! Ea gustatzen zaizuen! Eskerrik asko!



Doinua: Ari naizela (Pello Errota-Txirrita)

ATEAN

Ari naizela, ari naizela
ume izatetik irteten,
gazte izatea zer ote den
hasia naiz ni pentsatzen.
Alde batetik, egitan nago
gauza onak desiratzen.
Bestalde beldurra ez falta
asko dudalako galtzen.

Umetan dena da goxo erraz
etxekoen babesean.
Koxkortzean hori aldatzea
pasa ohi da ezinbestean.
Gauzak zailtzen bazaizkigu ere,
ametsa dugu haztea
gurasoen eskua utzi ta
guk bideari heltzea.

Gure barnean beti izango da
izan ginen ume hori.
Egoskor eta bihurri izana
ezingo dugu guk utzi.
Familiari zor dioguna
bizitzan ezin itzuli.
Bide berrian gure ondoan
izango dira bai beti.